

Carmen Valois

NUPEKO IRAKASLEA

Kapital mentala

Aspaldi irakurritako artikulu batekin nabil bueltaka egun hauetan. Hain zuzen, *Nazioen aberastasun mentala* (*The mental wealth of nations*, Beddington, 2008) izenekoa. Bertan,

Erresuma Batuan egindako ikerketa baten berri ematen du, hortik sorturiko ildo nagusiak aurkeztuz.

Hala nola, ikasteak duen garrantzia pertsonen bizitza ziklo osoan zehar zein neurozientzien ahalmena, hainbat gaixotasun edo eskola-zailtasun garaiz detektatzeko. Ondorio orokor gisa honakoa azpimarratzen du: herrien garapenerako ezinbestekoa da herritarren baliabide kognitiboak kapitalizatzea, aurrerapen soziala eta ekonomikoa lortzeko.

Horrez gain, kapital mentalaren kontzeptuaz mintzo da. Artikuluak dioenez, errekurtsu kognitibo, emozional, estresarekiko erresistentzia, trebetasun sozial, eta abarrek osatzen dute kapital hori eta ongizate mentalarekin estuki lotua dago. Izan ere, elementu horien bitartez gai gara gizartean parte hartzeko, ekarpenak egiteko eta bizi-kalitate maila handia esperimentatzeko.

Geurera etorrita, Diego Graciak –mediku eta filosofo madrildarrak– berriki Donostian emandako hitzaldian, *Krisian balioak eta Balioen krisia*, zera zioen: Batzuentzat, ekonomikoa da krisia; ikuspuntu horretatik,



DANI BLANCO

ekonomia ministroek eta gobernuek atera behar gaituzte hortik. Besteentzat, ordea, hori baino zerbait sakonagoa da, eta eredu ekonomikotik harago, egiturazko aldaketa eskatzen du; funtsean, balioak daude oinarrian. Eta ekonomia berez balio bat da, baina ekonomiak ez lituzke mende hartu behar beste balio batzuk, esaterako, justizia, askatasuna edo elkartasuna, ia desagerarazteraino.

Graciak aipatzen dituen bi jarrera horiek adierazten dute, nire ustez, zein den mutur bakoitzean dagoen subjektu mota. Esango nuke gizartean dagoen herritar pasiboaren eta aktiboaren arteko aldea nabarmen agertzen dela; nik kapital mentalaren erabilpenarekin lotzen dut, eta balioekin. Azken finean, kapital hori beste balio bat da, aktibatze ahalmena du eta etsipenari aurre egiteko tresna da.

Iruditzen zait, bada, kapital hori identifikatzea eta sustatzea ezinbestekoa dela. Uste dut haren erabilpena giltzarri izan daitekeela krisiaren kudeaketan, herrien ongizaterako, gizartearen kohesiorako eta bazterketa soziala saihesteko funtsezkoa delako. Eta ziur aski, herrien garapena neurtzeko adierazle gisa erabiliko bagenu, biharko mundua beste era batera eraikitzeko aukerak sortuko genituzke. ■



«
Gizartean dagoen
herritar pasiboaren eta
aktiboaren arteko aldea
nabarmen agertzen da;
nik kapital mentalaren
erabilpenarekin lotzen
dut, eta balioekin
»

TXANDAN

Josu Amezaga



Taldeak errepresentatzeko banderak oso aspalditik erabiliak izan badira ere, XVII.

mendetik aurrera itsasoan nabigatzean boteregune bakoitzaren ontziak bereizteko erabiltzen hasi ziren, gaur egun ezagutzen ditugun bandera nazional asko. Zeharo aldatzen ari zen mundua, inperio eta kontinentearteko merkataritzaren hedatzearekin, eta itsasoko nabigazioa zen aldaketa horren eragile handienetako bat. Zenbaitek hortxe kokatzen du, hain juxtu, globalizazioaren hasiera.

Aranatar anaiek ikurrina sortu zutenerako aldiz nazioak errepresentatzeko erabiltzen ziren banderak,

.eus ikurrina

eta asmo horrekin egin zuten haren diseinu arrakastatsua: geroztik Euskal Herri osoa ordezkatzeko duena.

Egun Interneteko nabigazioak hartu duen garrantzia duela lau mende itsasokoak hartu zuenaren parekoa da. Horregatik sareko jarioetan ezagutuak izatea ezinbestekoa dugu euskaldunok, munduan garela jakin dadin. ICANNen gure “.eus” ikurrin berriaren hautagaitza aurkeztetokan da, ea gauzak ondo eta arin ateratzen zaizkigun.

Imajina ote dezakegu zer izango litzatekeen Euskal Herria, duela ia ehun eta hogei urte ikurrina asmatu izan ez balitz? ■

